Batere pozik ez	8	9	8	6	10	5	9	9
Ed/Ee	3	3	4	4	3	4	3	4
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	213	182	105	290	95	171	129

4.9. Euskadiren egoerari buruzko balorazioen ondorioak

2024an, gazteek 10 puntutik 6,2 ematen diote [Euskadiko egoera orokorrari](#), 30 urtetik gorakoek baino puntuazio altuagoa (6,0). 2024ko puntuazioa 2023an izandakoa baino dezima bat altuagoa da, baina 2017-2019 aldian jasotakoak baino baxuagoa.

Euskadik dituen hiru arazo nagusiak zeintzuk diren galdetzen zaienean, gazteek gehien aipatzen dituzte lan-merkatuari eta etxebizitzari lotutakoak. Gazteen % 37k berez aipatu ditu lan-merkatuari lotutako arazoak eta % 36k etxebizitzari lotutakoak. Hirugarren tokian, baina alde handiarekin, arazo ekonomikoak eta osasunari lotutakoak daude (horietako bakoitza gazteen % 20k aipatu ditu berez, hau da, aukerarik iradoki gabe). 30 urtetik gorako biztanleriaren ustez, arazo nagusia lana da (% 49k lan-merkatuari lotutako arazoak aipatu ditu); bigarren tokiak osasunari lotutakoak daude (% 36k aipatu ditu), eta, hirugarren tokian, etxebizitzarekin lotutako arazoak (% 30k adierazi ditu).

Etxebizitzari lotutako arazoaren pisua hirukoiztu egin da 2021etik 2024ra gazteen artean (2021ean gazteen % 12k aipatu zituen eta 2024an % 36k).

Emakumeek gehien aipatu duten arazoa lana izan da (emakumeen % 44k aipatu du), gizonek baino 12 puntu gehiago (gizonen % 32k aipatu du lana). Gizonen artean etxebizitza da arazo nagusia (gizonen % 35ek aipatua), nahiz eta emakume gehixeagok (% 38k) aipatu berez etxebizitzari lotutako arazoak.

2024an [Euskadiren egoera ekonomikoari](#) emandako balorazioa serie osoko altuenetariko bat da. Hamar gaztetik zortzik uste dute ona edo oso ona dela. 30 urtetik gorakoen artean Euskadiren egoera ekonomikoa ontzat jotzen dutenen ehunekoa antzekoa da (% 78). Emakume gazteen iritzia gizon gazteena baino baikorragoa da (% 83k eta % 77k, hurrenez hurren, oso ona edo ona dela uste dute). 18-24 urtekoek 25-29 urtekoek baino hobeto baloratzen dute Euskadiko egungo egoera ekonomikoa (ontzat jo dute % 83k eta % 77k, hurrenez hurren).

Euskadiko hamar gaztetik zazpik [Euskadiren egoera politikoa](#) ona edo oso ona dela diote (% 69k). Multzo horren barne egitura oso desorekatua da, % 67k uste baitu egoera politikoa ona dela eta oso ona dela bakarrik % 2k. 30 urtetik gorakoen taldean % 66k dio egoera politikoa ona edo oso ona dela, 18-29 urteko gazteen artean izandako ehunekoaren 3 puntu azpitik.

Gazteek Euskadiren egoera politikoari buruz egindako balorazioa hobetu egin da iaz izandakoarekin konparatuta, eta 2021ean jaso ziren balorazio onen ehunekoetara iritsi ez bada ere, oraingo zifrak 2010 eta 2018 artean izandakoak baino altuagoak dira, argi eta garbi.

Batu egiten baditugu Euskadiko egoera politikoa ona eta oso ona dela uste dutenen ehunekoak eta taldeen araberako aldeak aztertzen baditugu, ikusiko dugu emakumeek gizonek baino hobeto baloratzen dutela Euskadiren egoera politikoa (% 78 eta % 61, hurrenez hurren). Adinaren arabera, talde gazteenak du balorazio hobea (% 80k ontzat jo du, eta 25-29 urtekoen taldean % 64k).

Hamar gaztetik zazpik [Euskadin dauden zerbitzu publikoak](#) onak direla diote (% 70ek), 30 urtetik gorakoen artean jasotako ehunekoaren antzera (% 69). Euskadin ematen diren zerbitzu publikoei balorazio onak ematen dizkieten gazteen artean, gehiago dira zerbitzu horiek onak direla uste dutenak (% 55) oso onak direla diotenak baino (% 15).

25 urtetik beherako gazteek 25-29 urtekoek baino askoz hobeto baloratu dituzte Euskadin dauden zerbitzu publikoak (% 84k eta % 65ek, hurrenez hurren, uste dute oso onak edo nahikoa onak direla).

Gazteen artean ez dago gehiengo argirik zerbitzu publikoek izango duten bilakaerari buruz galdetzen zaienean. % 32k uste du datozen urteetan Euskadiko zerbitzu publikoek hobera egingo dutela, % 31k uste du berdin jarraituko dutela eta % 36k okerrera egingo dutela. 30 urtetik gorakoen artean gazteen artean baino handiagoa da zerbitzu publikoak hobetuko direla uste dutenen ehunekoa (% 37).

Gazteen artean, emakumeak eta 25-29 urtekoak dira ezkorrenak, talde bietan % 39k uste du datozen urteetan zerbitzu publikoek okerrera egingo dutela.

Zerbitzu publikoen kudeaketa publiko ala pribatuari dagokionez, gazteen artean iritzirik zabalduena da enpresa pribatuek kudeatutakoek hobeto funtzionatzen dutela (gazteen % 42k uste du hori eta % 27k, aldiz, uste du administrazio publikoek zuzenean kudeatutakoek hobeto funtzionatzen dutela). 30 urtetik gorakoen artean, aldiz, gehiago dira zerbitzu publikoen kudeaketa publikoa hobesten dutenak (% 42), kudeaketa pribatua nahiago dutenak baino (% 23).

Gizon gazteek emakume gazteek baino neurri handiagoan uste dute enpresa pribatuek kudeatutako zerbitzu publikoek hobeto funtzionatzen dutela (gizonen % 47k eta emakumeen % 36k).

Gazteen % 56 pozik dago [demokraziak Euskadin duen funtzionamenduarekin](#). Ehuneko hori 30 urtetik gorakoen artean jasotakoa (% 44) baino handiagoa da. Poztasunik handiena 18-24 urtekoek adierazi dute (% 62 dago pozik talde horretan).

Demokraziak Euskadin duen funtzionamenduarekin pozik dauden gazteen ehunekoa antzeko da 2024an (% 56) eta 2022an (% 58).


5.ESPAINIAREN EGOERAREN BALORAZIOA

5.1. Espainiaren egoeraren balorazioa 0-10 artek eskalan

OTIK 10 PUNTUTARA DOAN ESKALA ERABILIZ -0AK OSO GAIZKI ESAN NAHI DU ETA 10AK OSO ONGI-, ESPAINIAN GAUZAK NOLA DOAZELA USTE DUZU?

0-10 ARTEKO BATEZBESTEKOA	18-29 urte	≥ 30 urte
Espainiaren egoerari emandako puntuazioa	5,2	4,7
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera orokorrari buruz egiten duten balorazioaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoerari buruz egindako balorazioa, taldeen artean


0-10 ARTEKO BATEZBESTEKOA	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Espainiaren egoerari emandako puntuazioa	5,2	4,9	5,5	5,2	5,1	5,3	5,2	5,1
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	213	182	105	290	95	171	129

5.2. Espainiaren egoera ekonomikoaren balorazioa


ZURE USTEZ, NOLAKOA DA ESPAINIAKO EGOERA EKONOMIKOA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	1	1
Ona	34	38
Txarra	47	42
Oso txarra	17	13
Ed/Ee	2	5
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	5270

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Espainiaren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioa, taldeen artean


%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	1	1	1	1	0	2	0	1
Ona	34	31	37	36	32	40	32	34
Txarra	47	48	46	46	47	39	52	41
Oso txarra	17	20	14	14	19	18	14	22
Ed/Ee	2	1	3	3	1	1	2	2
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	426	364	198	592	190	342	258

5.3. Espainiaren egoera politikoaren balorazioa


ZURE USTEZ, NOLAKOA DA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	1	1
Ona	23	18
Txarra	46	43
Oso txarra	27	34
Ed/Ee	2	4
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	5270

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Espainiaren egoera politikoari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera politikoari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



18 eta 29 urte bitarteko gazteek Espainiaren egoera politikoari buruz egindako balorazioa, taldeen artean

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	1	0	2	1	1	1	1	0
Oso txarra	46	42	51	50	44	44	49	41
Oso ona + Oso txarra	47	42	53	51	45	45	50	41
Ed/Ee	2	4	1	2	2	1	3	2
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	790	426	364	198	592	190	342	258

5.4. Espainiaren egoerari buruzko balorazioen ondorioak

Gazteek 5,2 punturekin (0-10 arteko eskalan) baloratzen dute **Espainiaren egoera** orokorra, 30 urtetik gorakoek eman duten balorazioa baino 0,5 puntu altuagoa. Emakume gazteek gizon gazteek baino balorazio positiboagoa dute (5,5 puntu eta 4,9 puntu, hurrenez hurren).

Gazteen % 64k uste du **Espainiaren egoera ekonomikoa** txarra edo oso txarra dela, 30 urtetik gorakoek emandako baloraziotik 9 puntu gora (nagusien artean % 55ek uste du txarra dela).

Espainiaren egoera ekonomikoari buruzko balorazioa okertu da 2023an izandakoarekin alderatuz gero, baina, hala ere, 2011 eta 2022 artean jasotakoak baino askoz hobea da oraingoa.

Batera kontuan hartzen baditugu Espainiaren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela deritzotenak ikusiko dugu emakumeek eta 25 urtetik beherakoek ematen dituztela baloraziorik onenak (% 38 eta % 37, hurrenez hurren), nahiz eta balorazio positibo horiek ematen dituztenek gehiengoa ez osatu. Araban bizi diren gazteek Bizkaian edo Gipuzkoan bizi direnek baino hobeto baloratzen dute Espainiako egoera ekonomikoa.

Gazteen % 73ren ustez **Espainiaren egoera politikoa** txarra edo oso txarra da. 30 urtetik gorako biztanleen artean iritzi hori are hedatuago dago (% 77k uste du txarra dela).

Gazteek Espainiaren egoera politikoari buruz egindako balorazioa okertu egin da 2023tik 2024ra. Baina, egoera ekonomikoa baloratzean gertatzen den bezala, Espainiaren egoera politikoa ondo baloratzen duten gazteen ehunekoa 2010 eta 2018 artean izandakoa baino nabarmen handiagoa da orain.

Gizon gazteek emakume gazteek baino kritikoagoak dira Espainiaren egoera politikoarekin. Eta Gipuzkoako gazteak dira, dudarik gabe, kritikoenak.


6. BALIO ETA JARRERA POLITIKOAK

6.1. Politikarekiko interesa


ORO HAR, NOLAKO INTERESA DUZU POLITIKAZ?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Interes handia	13	12
Nahikoa interes	25	26
Interes gutxi	41	35
Batere interesik ez	20	27
Ed/Ee	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek politikarekiko duten interesaren arteko alderaketa (%)



18 eta 29 urte bitarteko gazteek politikarekiko duten interesaren bilakaera (%)



18 eta 29 urte bitarteko gazteek politikan duen interesa, taldeen arabera


%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Interes handia	13	18	8	15	13	12	16	9
Nahikoa interes	25	25	26	26	25	24	23	30
Interes gutxi	41	37	46	41	41	41	44	37
Batere interesik ez	20	20	21	18	22	23	18	24
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	639	546	303	882	285	513	387

6.2. Ezker-eskuin eskalan kokatzea


POLITIKAZ HITZ EGITEN DENEAN NORMALKI EZKERRAZ ETA ESKUINAZ HITZ EGITEN DA. ZU ZEIN TOKITAN KOKATUKO ZINATEKE OTIK 10ERAKO ESKALAN? OAK EZKER MUTURRA ESAN NAHI DU ETA 10AK ESKUIN MUTURRA ETA, BERAZ, 5AK ZENTROA.

%	18-29 urte	≥ 30 urte
0 (Ezker muturra)	7	5
1	4	2
2	10	6
3	15	12
4	11	12
5	30	39
6	6	6
7	5	4
8	3	2
9	1	0
10 (Eskuin muturra)	2	1
Ed/Ee	6	10
Ehuneko bertikalak	100	100
Batez besteko puntuazioa (0-10)	4,1	4,3
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek ezker-eskuin eskalan duten posizionamenduaren alderaketa (%)



18-29 urteko gazteek eta 30 urteko edo gehiagoko biztanleek ezker-eskuin eskalan duten posizionamenduaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



* Ez dugu 30 urtetik gorako biztanleriari zegokion 2011ko datua

18 eta 29 urte bitarteko gazteen kokapena esker-eskuin eskalan, taldeen arabera


%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ezker muturra (0-1)	11	11	11	10	12	12	13	9
Ezkerra (2-3)	25	22	28	31	22	20	26	25
Zentro-ekerra (4)	11	10	12	10	12	9	11	13
Zentroa (5)	30	30	30	27	32	37	28	32
Zentro-eskuina (6)	6	7	5	6	6	6	6	5
Eskuina (7-8)	7	9	5	8	7	6	8	7
Eskuin muturra (9-10)	3	4	2	6	2	2	4	3
Ed/Ee	6	6	7	3	8	7	6	7
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
Batez besteko puntuazioa (0-10)	4,1	4,3	3,9	4,2	4,0	4,1	4,1	4,2
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	639	546	303	882	285	513	387

6.3. Euskal nazionalismo edo abertzaletasunaren eskalan kokatzea


BESTALDE, EUSKAL NAZIONALISTA EDO ABERTZALE SENTIMENDUARI DAGOKIONEZ, ESANGO ZENIDAKE, MESEDEZ, NON KOKATUKO ZINATEKEEN OTIK 10ERAKO ESKALAN, KONTUAN HARTUTA 0A DELA BATERE NAZIONALISTA EDO ABERTZALEA EZ ETA 10A OSO NAZIONALISTA EDO ABERTZALEA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
0 (Batere nazionalista edo abertzalea ez)	13	17
1	2	2
2	4	3
3	5	4
4	4	5
5	29	23
6	9	8
7	10	9
8	10	9
9	3	4
10 (Oso nazionalista edo abertzalea)	5	9
Ed/Ee	5	7
Ehuneko bertikalak	100	100
Batezbestekoa 0-10	5,0	5,0
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905

18 eta 29 urte arteko gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek euskal nazionalismoaren eskalan duten posizionamenduaren alderaketa (%)



18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek euskal nazionalismoaren eskalan duten posizionamenduaren bilakaera (0-10 arteko batez bestekoa)



* 2011n ez zegoen 30 urte eta gehiagokoen daturik


18 eta 29 urte bitarteko gazteen kokapena euskal nazionalista edo abertzale eskalan, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batere nazionalista ez (0-1)	16	18	13	11	18	22	15	14
Ez oso nazionalista (2-4)	13	12	14	14	12	15	14	11
Apur bat nazionalista (5)	29	28	30	27	30	26	29	31
Nahiko nazionalista (6-8)	29	28	30	30	28	23	28	32
Oso nazionalista (9-10)	9	10	8	13	7	9	9	8
Ed/Ee	5	5	5	5	5	5	6	4
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
Batez besteko puntuazioa (0-10)	5,0	4,8	5,1	5,4	4,8	4,4	5,0	5,1
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	639	546	303	882	285	513	387


6.4. Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna

ALDERDI POLITIKOREN BATETIK HURBIL SENTITZEN ZARA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso hurbil	5	6
Nahikoa hurbil	11	12
Apur bat hurbil	20	18
Ez oso hurbil	16	18
Batere hurbil ez	47	45
Ed/Ee	1	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635



18 eta 29 urte bitarteko gazteek alderdi politikoekiko duten hurbiltasun-mailaren bilakaera (%)




18 eta 29 urte bitarteko gazteen hurbiltasuna alderdi politikoekiko, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso hurbil	5	7	3	6	5	4	5	5
Nahikoa hurbil	11	12	10	16	9	4	14	11
Apur bat hurbil	20	18	22	21	19	21	22	17
Ez oso hurbil	16	14	19	10	19	17	18	14
Batere hurbil ez	47	48	46	46	48	54	41	52
Ed/Ee	1	1	0	2	0	0	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	213	182	105	290	95	171	129

6.5. Botoa emateko ohitura

HAUTESKUNDEAK EGITEN DIRENEAN, ZUK BETI EMATEN DUZU BOTOA, BATZUETAN BAI ETA BESTEETAN EZ, EZ DUZU INOIZ BOTORIK EMATEN, BOTOA EMAN DEZAKEZUN LEHEN ALDIA LITZATEKE EDO EZ DUZU BOTOA EMATEKO ESKUBIDERIK?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Hauteskunde guztietan ematen duzu botoa	40	55
Batzuetan bai, beste batzuetan ez	26	25
Ez duzu inoiz botoa ematen	20	14
Botoa eman dezakezun lehenengo aldia litzateke (18 urte edo nazionalitate berria)	7	1
Ez duzu botoa emateko eskubiderik (atzerritarra, eta abar)	7	4
Ed/Ee	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	7905



18 eta 29 urte bitarteko gazteek duten bozkatzeko ohitura, taldeen arabera


%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hauteskunde guztietan ematen duzu botoa	40	38	43	39	41	39	41	40
Batzuetan bai, beste batzuetan ez	26	26	26	20	29	24	27	26
Ez duzu inoiz botoa ematen	20	25	13	20	19	22	19	20
Botoa eman dezakezun lehenengo aldia litzateke (18 urte edo nazionalitate berria)	7	5	9	16	3	5	8	6
Ez duzu botoa emateko eskubiderik (atzerritarra, eta abar)	7	6	9	5	8	9	6	9
Ed/Ee	0	0	1	0	1	1	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1185	637	548	352	833	285	513	387

6.6. Buruzagi politikoen ezagutza

JARRAIAN, EUSKADIKO BURUZAGI POLITIKO BATZUEI BURUZ GALDETU NAHI NIZUKE. ESADAZU, MESEDEZ, EZAGUTZEN DITUZUN ALA EZ.

Ezagutzen dutenen %	18-29 urte	≥ 30 urte
Imanol Pradales	66	78
Pello Otxandiano	43	52
Eneko Andueza	39	53
Amaia Martínez	27	25
Javier de Andrés	21	43
Jon Hernández	17	14
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

Eusko Legebiltzarrean ordezkartza duten alderdi politikoetako buruzagi politikoak ezagutzen dituzten 18 eta 29 urte arteko gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen ehunekoen arteko alderaketa (%)



18 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek ezagutzen duten buruzagi politiko hauetako bakoitza, taldeen arabera


Ezagutzen dutenen %	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Imanol Pradales	66	69	63	59	69	63	70	62
Pello Otxandiano	43	47	39	30	48	36	44	44
Eneko Andueza	39	42	36	26	44	32	33	52
Amaia Martínez	27	28	26	28	27	21	28	29
Javier de Andrés	21	24	16	13	24	18	22	19
Jon Hernández	17	17	18	15	18	28	15	16
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	213	182	98	297	95	171	129

6.7. Hainbat erakundeekiko konfiantza

JARRAIAN, ZENBAIT INSTITUZIOREKIKO DUZUN KONFIANTZARI BURUZ GALDETU NAHI NIZUKE. AIPATUKO DIZUDAN BAKOITZAREKIKO, ESADAZU, MESEDEZ, GEHIENBAT KONFIANTZA DUZUN ALA GEHIENBAT EZ DUZUN KONFIANTZARIK.

Konfiantza dutenen %	18-29 urte	≥ 30 urte
Unibertsitateak	84	84
Eusko Jaurlaritza	75	73
Zure herriko udala	70	70
Zure diputazioa	68	69
Eusko Legebiltzarra	67	68
Sindikatuak	67	43
Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKEak/ONGak)	58	57
Enpresak	56	58
Justizia Epaitegiak	55	44
Europar Batasuna	52	51
Espainiako Gobernua	30	32
Bankuak	29	22
Hedabideak	23	32
Diputatuen Kongresua	21	25
Alderdi politikoak	17	20
Eliza Katolikoa	16	27
Espainiako Erregetza (Monarkia)	14	22
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	2635

18 eta 29 urte arteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek erakunde bakoitzarengan duten konfiantzaren alderaketa (konfiantza dutenen %)



Erakunde bakoitzean konfiantza duten 18 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)									
(%)	2010	2014	2016	2018	2019	2021	2022	2023	2024
Unibertsitatea					78	85	82	80	84
Eusko Jaurlaritza	58	64	75	63	76	83	76	77	75
Udalak	57	63	72	66	74	71	73	72	70
Foru aldundiak	58	51	64	59	68	76	70	73	68
Eusko Legebiltzarra	52	52	71	60	72	75	67	74	67
Sindikatuak	52	38	44	36	52	64	64	58	67
Erakundeak	66	65	65	53	66	65	64	59	58
Enpresak	48	48	49	38	51	62	55	49	56
Justizia epaitegiak	28	26	36	26	32	50	55	52	55
Europar Batasuna	47	39	47	48	63	67	64	53	52
Espainiako Gobernua	26	17	20	19	27	29	27	27	30
Bankuak			20	18	28	26	24	24	29
Hedabideak	36	37	37	26	42	36	23	23	23
Diputatuen Kongresua	19	13	17	16	21	23	19	18	21
Alderdi politikoak	12	12	16	12	19	18	14	15	17
Eliza katolikoa	12	18	20	15	20	19	14	12	16
Espainiako monarkia					14	11	11	9	14

Zenbait erakundeetan konfiantza duten 18 eta 29 urte bitarteko gazteak, taldeen arabera

Konfiantza dutenen %	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Unibertsitateak	84	83	85	87	83	76	88	82
Eusko Jaurlaritza	75	68	83	75	75	80	72	76
Zure herriko udala	70	68	73	74	69	77	71	67
Zure diputazioa	68	57	81	67	68	69	69	65
Eusko Legebiltzarra	67	64	72	69	67	76	68	62
Sindikatuak	67	63	71	70	65	71	70	59
Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKEak/ONGak)	58	58	58	59	57	59	59	55
Enpresak	56	58	54	56	56	56	53	60
Justizia Epaitegiak	55	51	60	54	55	52	54	57
Europar Batasuna	52	46	59	54	51	53	52	51
Espainiako Gobernua	30	31	28	36	27	42	32	22
Bankuak	29	26	32	29	28	30	34	21
Hedabideak	23	22	24	25	22	25	23	21
Diputatuen Kongresua	21	21	20	24	19	24	23	16
Alderdi politikoak	17	16	20	19	17	20	19	13
Eliza Katolikoa	16	13	21	18	16	26	18	10
Espainiako Erregetza (Monarkia)	14	15	11	18	11	14	21	2
n (absolutuak, haztatu gabe)	395	213	182	105	290	95	171	129

6.8. Gazteen jarrera politikoei buruzko ondorioak

Politikarekiko interesak 2010etik gaur egunera izandako maila altuenetarikoetan jarraitzen du. 2010ean gazteen % 16k zuen interesa politikan; 2024an, aldiz, % 38 dago interesatuta. Politikan interesa duten 30 urtetik gorakoek ehunekoa gazteen artean izandakoaren bezalakoa da 2024an (% 38).

Politikan interesatuta dauden gizon gazteen ehunekoa emakumeen artean izandakoa baino handiagoa da (% 43 eta % 34, hurrenez hurren), nahiz eta gizonen artean ere intesa dutenek gehiengo ez osatu.

0 eta 10 arteko **ezker-eskuin eskalan** (non 0a esker muturra eta 10a eskuin muturra diren), gaztean 4,1ean kokatzen dira, beraz, esan genezake zentro-ezkerrean kokatzen direla. Ia gazteen erdiak (% 47) 0 eta 4 artean kokatu dira eskala horretan. Bilakaerak aldaketa handirik erakusten ez badu ere, 2010etik gaur egunera puntuazioak 3,7 eta 4,1 artean egon baitira, azken hiru urteetan gazteen batez besteko puntuazioak 4aren inguruan egonkortu dira, zentroko posizioetara hurbilduz.

Serie osoan gazteen posizioak 30 urtetik gorakoek baino ezkererago egon dira. 2024an emakume gazteak gizon gazteak baino pixka bat ezkererago kokatu dira eta 25 urtetik beherakoak 25-29 urtekoak baino ezkererago.

Euskal nazionalismoaren eskalan, bai gazteek bai 30 urtetik gorakoek, batez beste, 5,0ko puntuazioa dute 0-10 arteko eskalan. 2010ean hasitako serie osoan, gazteen batez besteko puntuazioa nahiko egonkorra izan da, 4,9 eta 5,4 artean egon baita urte guztietan.

2024an, 25 urtetik beherakoek 25-29 urtekoek baino puntuazio altuagoa izan dute, batez beste, euskal nazionalismoaren eskalan (5,4 eta 4,8, hurrenez hurren). Gipuzkoako eta Bizkaiko gazteek arabarrek baino pixka bat nazionalistagotzat jotzen dute bere burua (Gipuzkoakoak 5,1ean kokatu dira, Bizkaikoak 5,0an eta Arabakoak 4,4an, batez beste).

Gazteen % 16 bakarrik sentitzen da **alderdi politikoren batetik hurbil** (oso edo nahiko hurbil). Talde horri apur bat hurbil sentitzen direnen ehunekoa gehitzen badiogu, ikusiko dugu alderdi politikotatik nolabait hurbil sentitzen diren gazteen ehunekoa % 36 dela.

Gazte gehienek, % 63k, ez daudela alderdi politikotatik oso hurbil edo batere hurbil ez daudela adierazi dute, 30 urtetik gorakoek artean izandako ehunekoaren antzera (% 62). Hala ere, hurbiltasun gutxi edo batere ez dutela adierazi duten gazteen ehunekoa murriztu da eta 2000 urtean hasitako seriearen baxuena da orain.

Gizon gazteek, 25 urtetik beherako gazteek eta Bizkaian eta Gipuzkoan bizi diren gazteek, nahiz eta atxikimendu txikia izan alderdi politikotatik, ehuneko handienak osatu dituzte.

Gazteen % 66k **botoa emateko eskubidea** baliatu du; % 40k 18 urte dituenetik izandako hauteskunde guztietan bozkatu du eta beste % 26k hauteskunde batean edo batzuetan bozkatu du baina ez guztietan. Gazteen % 20k ez duela inoiz botoa ematen aitortu du, gizon gazteek (% 25) emakume gazteek (% 13) baino

neurri handiagoan. 30 urtetik gorakoen artean, botoa inoiz ematen ez dutenen ehunekoa txikiagoa da, % 14, hain zuzen ere.

2015etik 2024ra hauteskunde guztietan bozkatzen dutela dioten gazteen ehunekoa bost puntu igo da, % 35etik % 40ra.

Gazteek [gehien ezagutzen duten politikaria](#) Imanol Pradales da; % 66k ezagutzen du. Gero datoz Pello Otxandiano (gazteen % 43k ezagutzen du) eta Eneko Andueza (% 39k). 30 urtetik gorakoen artean ehuneko handiagoak ezagutzen ditu buruzagi politiko guztiak, Amaia Martínez eta Jon Hernández izan ezik, bi politikari horiek antzeko ezagutza-ehunekoak dituzte gazteen eta 30 urtetik gorakoen artean.

Unibertsitatea da [gazteengandik konfiantza handien jasotzen duen erakundea](#) (gazteen % 84k baitu konfiantza unibertsitatean). Halaber, gehiengoa dira honako erakunde hauetan konfiantza duten gazteak: Eusko Jaurlaritzan (% 75) bere herriko udalan (% 70), foro aldundietan (% 68), Eusko Legebiltzarrean (% 67), sindikatuetan (% 67), Gobernu Kanpoko Erakundeetan (% 58), enpresetan (% 56), Justizia epaitegietan (% 55) eta Europar Batasunean (% 52).

Dezente gutxiago dira honako erakunde hauetan konfiantza duten gazteak: Espainiako Gobernuan (% 30), bankuetan (% 29), hedabideetan (% 23), Diputatuen Kongresuan (% 21), alderdi politikoetan (% 17), Eliza Katolikoan (% 16) edo Espainiako Erregetzan (% 14), azken hori baita Euskadiko gazteengandik konfiantza gutxien jaso duen erakundea.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek 30 urtetik gorako biztanleek baino konfiantza handiagoa dute sindikatuetan eta Justizia epaitegietan.

7. LABURPEN EXEKUTIBOA

Gazteek ondo baloratzen dute bere **egoera pertsonala** (10 puntutik 7,2 ematen dizkiote), 30 urtetik gorakoek baino pixka bat hobeto (7,0).

Lan egoerari buruz galdetzen zaienean, gazteen % 70ek balorazio ona ematen dute: % 23k oso ona dela dio eta beste % 47ren iritziz nahiko ona da. 25-29 urtekoek 18-24 urtekoek baino pixka bat hobeto baloratzen dute bere lan egoera.

Norberaren lan egoerari buruzko balorazioak 2019an izandakoak baino hobeak dira orain (2019an gazteen % 64k adierazi zuen oso ona edo ona zela eta 2024an % 70ek).

Egonkortasuna da lan batean hobekien baloratzen den ezaugarria (gazteen % 76k oso garrantzitsua dela uste du) eta, ondoren, ordutegia (% 63), lana interesagarria izatea (% 55), soldata altua izatea (% 46) eta gizartearentzat baliagarria izatea (% 46). Emakumeek gizonek baino gehiago baloratzen dute egonkortasuna eta ordutegia; gizonek emakumeek baino garrantzi handiagoa ematen diote soldadari.

Lan egiten duten gazteak gehien gogobetetzen dituen alderdia egiten duten lanaren interesa da (% 46). Atzetik datoz egonkortasuna (% 39), lana gizartearentzat baliagarria izatea (% 37) eta ordutegia (% 34). Lan egiten duten gazteen % 22 bakarrik dago pozik bere soldatarekin; hala ere, ehuneko hori 30 urtetik gorakoen artean jasotakoa (% 15) baino handiagoa da.

Lan egiten duten gizon gazteak emakume gazteak baino pozago daude lanean duten egonkortasunarekin eta soldatarekin.

2024an, gazteek 6,2 puntu eman dizkiote (0-10 eskalan) Euskadiren egoera orokorrari, 30 urtetik gorako herritarrek baino puntuazio altuxeagoa (6,0).

Lan-merkatuari eta etxebizitzari lotutako **arazoak** dira, gazteen iritziz, **Euskadik dituen garrantzitsuenak** (gazteen % 37k eta % 36k aipatuak, hurrenez hurren). Etxebizitzaren arazoak berez aipatu dituzten gazteak nabarmen areagotu dira 2024an. Hirugarren tokian arazo ekonomikoak eta osasungintzarekin lotutakoak daude (biek gazteen % 20k aipatuak). 30

Hamar gaztetik zazpik uste dute bere lan egoera ona dela

Egonkortasuna da lanean gehien baloratzen den ezaugarria, batez ere emakumeen artean

Lan egiten dutenen artean, hobekien baloratzen den alderdia lanaren interesa da eta txartoen baloratzen dena soldata da

Gazteek 6,2 puntu eman dizkiote Euskadiko egungo egoerari (0-10 eskalan)

urtetik gorakoen ustez, Euskadik duen arazo nagusia enpleguarena da (% 49) eta, ondoren, osasungintzarena (% 36) eta etxebizitzarena (% 30).

Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan aipatu dituzte lan-merkatuarekin lotutako arazoak (% 44k eta % 32k, hurrenez hurren). Etxebizitzaren arazoa aipatu duten emakume eta gizonen ehunekoak antzekoak dira (emakumeen % 38 eta gizonen % 35).

25-29 urtekoek 18-24 urtekoek baino neurri handiagoan aipatu dute etxebizitzaren arazoa (% 39k eta % 28k, hurrenez hurren).

2024an **Euskadiko egoera ekonomikoaren** balorazioa serieko positiboenetako bat da. Hamar gaztetik zortzik uste dute ona edo oso ona dela. 30 urtetik gorakoen artean Euskadiko egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela uste dutenen antzeko ehunekoa osatu dute (% 78). Emakume gazteek gizon gazteek baino iritzi hobea dute eta 18-24 urtekoek 25-29 urtekoek baino hobea.

Hamar gaztetik zazpiren ustez, **Euskadiko egoera politikoa** ona edo oso ona da (% 69), 30 urtetik gorakoen artean izandako ehunekoa baino handixeagoa (% 66).

Gazteek Euskadiko egoera politikoari buruz egindako balorazioa hobetu egin da aurreko urtean izandakoarekin alderatuta. Emakume gazteek gizon gazteek baino hobeto baloratzen dute Euskadiko egoera politikoa (balorazio onak eman dituztenak % 78 eta % 61 izan dira, hurrenez hurren). Adinaren arabera, 25 urtetik beherakoek 25-29 urtekoek baino balorazio hobea egin dute (% 80k 18-24 urtekoen taldean eta % 64k 25-29 urtekoenean).

Euskadin dauden zerbitzu publikoak onak dira gazteen % 70en ustez, 30 urtetik gorakoen antzeko portzentajea (% 69).

Gehiago dira empresa pribatuek kudeatutako zerbitzu publikoek administrazio publikoek kudeatutakoek baino hobeto funtzionatzen dutela pentsatzen duten gazteak. 30 urtetik gorakoen artean, aldiz, gehiago dira zerbitzuen kudeaketa publikoa hobesten dutenak. Enpresa pribatuek kudeatutako zerbitzu publikoek hobeto funtzionatzen dutela uste dutenen ehunekoa % 42 da gazteen artean eta % 23 nagusien artean. Gizon gazteek

Gazteen iritziak, enplegua eta etxebizitza dira Euskadik dituen arazo nagusiak

Hamar gaztetik zortzik uste dute Euskadiko egoera ekonomikoa ona dela

Euskadiko egoera politikoari buruzko balorazioa hobetu egin da. Hamar gaztetik zazpi onak dela uste dute.

Hamar gaztetik zazpiren ustez, Euskadin dauden zerbitzu publikoak onak dira

emakume gazteek baino neurri handiagoan babesten dute zerbitzu publikoen kudeaketa pribatua (% 47k eta % 36k, hurrenez hurren).

Gazteen % 56 pozik dago **demokraziak Euskadin duen funtzionamenduari**kin. Ehuneko hori 30 urtetik gorakoaren artean izandakoa (% 44) baino handiagoa da. Adin-talderik gazteenak (18-24 urtekoena) du poztasunik handiena (% 62).

Gazteek 10etik 5,2 puntu eman dizkiote **Espainiako egoerari**, Euskadikoari baino balorazio baxuagoa (6,2).

Gazteen ia bi herenek uste dute **Espainiako egoera ekonomikoa** txarra edo oso txarra dela (% 64k), 30 urtetik gorakoaren ehunekoarekin alderatuta, 9 puntu gehiago (nagusien artean % 55ek baloratzen du txarto).

Gazte gehienek ustez, **Espainiako egoera politikoa** txarra da (% 73). Kasu horretan gazteak ez dira 30 urtetik gorakoak bezain kritikoak.

Gazte gehienek Espainiako egoera ekonomikoa eta politikoa txarrak direla uste badute ere, Euskadiko egoera ekonomikoa eta politikoa buruz ematen dituzten balorazioak onak dira.

Gazteen % 38k **politikan interes** handia edo nahikoa interes duela adierazi du, 2010etik jaso den ehunekorik altuenetako bat. Gizon gazteek emakume gazteek baino interes handiagoa erakutsi dute (gizonen % 43k eta emakumeen % 34k).

Gazteek 30 urtetik gorakoek baino pixka bat **ezkerrerago** kokatzen dute beren burua. Kontuan hartuta 0 eta 10 arteko eskala, non 0a ezker muturra den eta 10a eskuin muturra, gazteak zentro-ekerrean kokatzen dira (4,1ean, batez beste). Bilakaerak aldaketa handirik erakusten ez badu ere, 2010etik gaur egunera batezbesteko puntuazioa 3,7 eta 4,1 artekoa izan baita, azken hiru urteetan gazteen batezbesteko puntuazioak 4aren inguruan egon dira, hau da, zentroko posizioetatik gertu.

Euskal nazionalismoaren edo abertzaletasunaren eskalan, zeinean 0ak esan nahi duen hor kokatzen den pertsona ez dela batere euskal nazionalista edo abertzalea eta 10ak oso nazionalista edo abertzalea dela, bai gazteak bai 30 urtetik gorakoak erdian kokatzen dira, 5ean, hain zuzen ere. Dena den, gehiago dira bere burua 6 eta 10 artean kokatzen duten

Gazteak 30 urtetik gorakoak baino pozago daude demokraziak Euskadin duen funtzionamenduari.

Gazteek hobeto baloratzen dute Euskadiko egoera (6,2) Espainiakoa baino (5,2)

Lau gaztetik hiruk uste dute Espainiako egoera politikoa txarra dela


Hamar gaztetik lauk interesa dute politikan

gazteak, beraz euskal nazionalistatzat edo abertzaletzat jo daitezkeenak (% 37) 0 eta 4 artean kokatzen dutenak baino (% 29).


Gazteen % 36 **alderdi politikoren batetik hurbil** sentitzen da, nolabait, baina % 16k bakarrik dio oso edo nahiko hurbil sentitzen dela.

Gazteen % 66k **botoa emateko eskubidea erabili** du, hau da, gutxienez behin bozkatu du. % 40k 18 urte dituenetik izan diren hauteskunde guztietan eman du bere botoa eta beste % 26k hauteskunde batzuetan bozkatu du baina ez ahal zituen guztietan. Gazteen beste % 20k ez duela inoiz bere botoa ematen aitortu du, gizonak emakumeek baino neurri handiagoan (% 25k eta % 13k, hurrenez hurren).



Unibertsitatea da gazte gehien fidatzen diren **erakundea** (% 84). Gazte gehienek ere konfiantza dute Euskadiko administrazio publikoan, hiru mailetan: Eusko Jaurlaritzan (% 75), foru aldundietan (% 68) eta udaletan (% 70).



Gazteen % 16 alderdi politikoren batetik hurbil sentitzen da



Hamar gaztetik lauk hauteskunde guztietan bozkatzten dute



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD